

**25/2024 TXOSTENA, URRIAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN  
AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.****GAIA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN  
KONTRATAZIOAREN ARAUBIDEA EZARTZEKO UZTAILAREN 27KO 116/2016  
DEKRETUA HIRUGARREN ALDIZ ALDATZEKO PROIEKTUA.****I.- AURREKARIAK.**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 333. artikulua dioenez (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), Ebaluazio Bulego Nazionalari dagokio txosten bat egitea finantza-iraunkortasuna aztertzeko, hala obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuena nola kontratu mota horietan oreka ekonomikoa berrezartzeko hartu beharreko akordioena, SPKLaren 333. artikuluen 3. apartatuan ezarritako kasuetan.

Era berean, artikulua horrek ezartzen duenez, autonomia-erkidego bakoitza Ebaluazio Bulego Nazionalari atxiki ahal izango zaio txosten horiek egin ditzan, edo organo edo organismo baliokide bat sortu ahal izango du nahitaezko txosten horiek egin ditzan, baldin eta bere lurralde-eremuko emakida-kontratuei eragiten badiete.

Euskal Sektore Publikoko entitateek era horretako hainbat txosten eskatu dituztenez, agerian geratzen da beharrezkoa dela SPKLaren 333. artikuluari dagokion eskumena geure gain hartzea.

Bestalde, alegazioak aurkezteko epean, UPV/EHUko Ondare eta Kontratazioetarako Gerenteordetzak, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua aldatzeko proiektuarekin ados dagoela adierazteaz gain, eskatu du bere entitatea ere sar dadila Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak kontratu-kostuen egiturari buruzko nahitaezko txostena ematen duenean. Txosten hori Espainiako Ekonomiaren



Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan arautzen da.

Horregatik guztiagatik, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak dagokion espedientea izapidetu du, prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez, DNCG\_LEY\_4682/24\_04 erreferentziarekin.

## **II. – AURRETIAZ KONTUAN HARTZEKOAK. TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.**

Hasteko, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 3. ataleko 1. artikulua xedatzen duenez, «xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak».

Halaber, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako dekretu-proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

*«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.*

*Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:*

*a) Nahitaezko txostenak prestatzea, kasu hauetan:*

*1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».*

Dekretu-proiektuak kontratazio publikoaren eremuan eragina duenez, txosten hau onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak dauka, Euskal Autonomia

Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua araberaz.

### III. – EDUKIA.

Aurrekarietan azaldu den bezala, SPKLaren 333. artikulua adierazten du Ebaluazio Bulego Nazionalari dagokiola txosten bat egitea finantza-iraunkortasuna aztertzeko, hala obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuena nola kontratu mota horietan oreka ekonomikoa berrezartzeko hartu beharreko akordioena, aipatutako 333. artikulua 3. apartatua ezarritako kasuetan.

Hala, botere eta entitate esleitzaeleak eta Estatuko Administrazio Orokorraren eta toki-korporazioen mendeko beste ente, organismo eta entitate batzuek obra-emakidako eta zerbitzu-emakidako kontratuak lizitatu aurretik, nahitaezko txostena egingo da honako bi kasu hauetan:

a) Kontratuaren balio zenbatetsia milioi bat eurotik gorakoa denean eta, emakida eraikitzeko edo ustiatzeko, ekarpen publikoak egiten direnean edota emakidaduna finantzatzen laguntzeko edozein neurri ezartzen denean.

b) Obra-emakidetan eta zerbitzu-emakidetan, baldin eta emakida esleitzen duen botereak bere gain hartzen badu tarifa osoa edo zati bat, obren edo lehen ezarpeneko gastuen zenbatekoa milioi bat eurotik gorakoa denean.

Era berean, kontratuaren oreka berrezartzeko akordioen berri emango da, aurreko a) eta b) letren arabera txostena jaso duten obra-emakidei eta zerbitzu-emakidei dagokienez, edo, txostenik egin gabe ere, horietan aurreikusitako elementuren bat kontratuan sartzea dakartenei dagokienez, betiere kontratuaren balio zenbatetsia milioi bat eurotik gorakoa bada.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea da sektore publikoko entitateen berariazko organo aholku-emailea, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 2. artikuluaekin lotuta 26.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.



Dekretuaren aplikazio-eremu subjektiboaren ondorioz, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eginkizunen artean ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak ez diren entitateek kontratazio publikoaren alorrean eskatzen dioten gaien buruz informatzea.

Hala, aldatzeko dekretu-proiektuaren helburuen artean dago uztailearen 27ko 116/2016 Dekretua SPKLaren 333. artikuluan ezarritakora egokitzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak txosten hori egin ahal izan dezan euskal sektore publikoko entitate guztiei dagokienez, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikularekin bat.

Bestalde, EHUko Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetzak adierazi du ados dagoela uztailearen 27ko 116/2016 Dekretuaren eremu subjektiboa zabaltzearekin, SPKLaren 333. artikuluko txostena emateari dagokionez, EHU ere barne hartzeko. Era berean, eskatzen du ezen, Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 4. artikularekin bat etorriz, erakunde horri dagozkion kontratuen kostuen egiturari buruzko txostenak ere egin ditzala Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak, Espainiako ekonomia desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen 4. artikulua UPV/EHU euskal sektore publikoko parte gisa aitortzen du, eta, beraz, egokia da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak UPV/EHUren kontratuen kostuen egiturari buruzko nahitaezko txostena emateko duen eskumena erakunde horri zabaltzea, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, Batzorde honen ustez zuzena da 116/2016 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua, bi xedapen berri jasotzen baititu helburu horrekin.

## **V.- ONDORIOAK.**

Azaldutakoa ikusita, eta txosten honetan jasotako zehaztapenak eta oharrak kontuan hartuko direlakoan, Batzorde honek aldeko irizpena ematen dio Euskal Autonomia

Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dekretu-proiektuari, sektore publikoko kontratazioari buruzko legeria kontuan hartuta.